

# Tintazko irribarrea

Kaputxinoek prentsa euskarara edo euskara prentsara ekartzea erabaki zutenean, testuei lotuta umore grafikoa ekarri zuten, hasieran irribarrea baino, hausnarketa espirituala eragin arren. Orduetik hona, euskal marrazkilari askok larrutu du gure errealitatea astekarian.

Lauzpabost orrialde aurrerago, astekari honetan bertan, Asisko Urmenetaren “Gora Pro Nobis” saileko emaitzarik berriena ikusiko du irakurleak. Ataleko tituluaren hitz jokoak kutsu erlijiosoak izan arren, Asiskoren umoreak zerikusi gutxi dauka 90 urte lehenago Zeruko ARGIAN azaldu ziren lehen komikiek. Aldizkariko lehen komikiak “Ikasil!... Ikasil!...” izenburu mehatxugarria zeukan –alboan, 1928ko apirilean argitaratutako komikiaren zati bat–. Marrazkien bidez kristau ikasbidea zuzen ibiltzen zutenak sarituak izango zirela



L.—Txinako gure misioetan; Kan-tso-lin mutiko txintoa zen, Aita Andresen mandatu geienak Berak xuxen egiten zituen.

irakasten zuten. Baina, bide okerra aukeratzen zutenek jasaten zituzten desgraziak ere gordin deskribatzen zituen. Gerra aurreko ARGIA laikoan, aldiz, Jon Zabalo “Txiki”ren marrazkiak argitaratzen ziren tarteka, eta 1928ko egutegian marrazkigile ezagunaren txiste sorta bildu zuten.

Zeruko ARGIA biziberrituan, 60ko hamarkadan, Lerro sinatzen zuten marrazkilariak garaiko kontuak, hala nola yeyeen txima luzeak edo musika estilo berriak, zituen hizpide. Baina euskal marrazkilari eta ilustratzaileen lehen belaunaldi

## Antton Olariaga, kazetaritza marrazkitan

Testuliburuetan, literatura-lanetan, “Ipurbeltz”en eta, batez ere, prentsan, maiz ikusi ditugu Antton Olariagaren marrazkiak, hitzari lotuak beti, besteen hitzei balio erantsia eskainiz edo, zergatik ez, hitz berriak asmatuz. Valentzian Arte Ederrak ikasten ari zela hasi zen prentsan kolaboratzen, *Las Provincias* egunkarian hain zuzen. Publizitate munduan zebilela, marrazki batzuk Zeruko ARGIAra bidaltzea bururatu zitzaion. Astekarikoei gustatu eta, berehala, 1972. urte hasieran Olariagaren marra bereizgarria argitaratu zen oraindik egunkari itxura zuen astekari hartan.

Hasieran marrazki solteak ziren. Gero, 80ko hamarkadan, asteroko atal eta pertsonaia finko bihurtu ziren: “Izan ere”, “Hormasprayko” eta “Mozorrozko”.

Baina ez zuen soilik Zeruko ARGIAN kolaboratzen. *Anaitasuna* aldizkarian ere argitaratu zituen marrazkiak eta Zakilixut pertsonaiarekin eskutik eguneroko prentsara salto egin zuen –*Eginen* hasieran, eta *Berrian* gaur egun–. ARGIArekiko lotura, dena den, ez du eten; horren lekuko, berriki ARGIAren 2.000 ale borobilaren azala berak egin izana.

Olariagaren lanek txiste grafikoaren muga gainditzen dute; umore alosez gain, hausnarketak, iruzkinak, dira. Bere “txistegintza komentariogintza da gehiago” irudigilearen beraren hitzetan.

Duela aste batzuk zera esan zion Sustrai Colinari astekari honetan bertan: “Ez zait pitorik gustatzen atzera begiratzea”. Guri bai, ordea, atzean ikusten duguna Olariagaren trazo baldin bada.



Olariagak Zeruko ARGIAN argitaratutako lehenengo irudia (1972).



Goian ezkerrean, Janis Joplinen karikatura, Josemari Alemanek egina (1980ko azaroa). Eskuinean, Jon Zabaletaren komikia: "Ipuin bat Olentzerotaz" (1976ko Gabonak). Azpian, Karlos Argiñanoren karikatura, Joxemi Zumalabek 1981eko apirilean egina. ARGIArekin batera banatua.

oparoa oraindik iristear zela, astekariak kanpoko lanak euskaratu behar izan zituen umore grafikoaren tartea betetzeko eta, hala, besteak beste, Antonio Madrigal umorista grafiko espainiarraren lanak itzulita argitaratu zituzten.

1972an Antton Olariagaren lehen marrazkia argitaratu zen; 1975ean astekariak bi komiki gehigarri kale-ratu zituen; 1976an Jon Zabaletak "Ipuin bat Olentzerotaz" komikia egin zuen, Olentzerori opari berezia eskatzeko: amnistia. Urtebete gero-ago, 1977an, Zabaletak eta Olariagak besteak beste, *Ipurbeltz* aldizkaria sortu zuten, eta hamarkada amaitu baino lehen irudia eta hitza uztartzen zituen "Euskadi Sioux" mitikoa sortu zen.

Irudigile eta umorista grafikoen loraldia 80ko hamarkadan gauzatu zen, eta ARGIAN ederki islatu zen hori. Sail eta pertsonaia finkoak sortu ziren, esaterako, Ramon Agi-

rreren "Zapasto"; Olariagaren "Izan ere", "Hormasprayko" eta "Mozorrozko"; "Hots" izenburuko atala eta abar. Joxemi Zumalabek, beste hainbat lanez gain, ilustrazioak ere egiten zituen, baita karikaturren bat ere –adibidez, orduan astekariko kolaboratzailea zen Karlos Argiñanorena—. Josemari Alemanek ere karikaturretan egiten zituen, asmakizun modura. Eta Zut delakok "Erretrato politikoak" atalean bertako nahiz kanpoko politikarien karikaturretan egiten zituen. 1986an TXT komiki gehigarria argitaratzen hasi zen astekariaren barruan. Bertan, besteak beste, Hugo Pratt-en "Corto Maltese"k eta Winsor McCay-ren "Nemo Txikia"k euskaraz ikasi zuten.

Umore grafikoak bere toki a egina zuen ARGIAN, gaurdaino beti bete den toki, batzuetan irribarre zabalagoa, besteetan gordinagoa eraginez. ■



Larrun pentsamendu aldizkariaren 1. zenbakiaren azala.



Coca-cola botila handiaren iragarkia. 1965eko lorailak 23

## EZTA FALTA BEAR

Katolikoa al zera? Maite al dituzu euskaldunen oitura on eta garbiak? Erljioa sendo eta euskaldunen oitura onak gorde nai badituzu Zeruko Argia'n dezu laguntzalle bikaña. Euskaldunen etxe guztietan ezta falta bear Zeruko Argia.

1955eko loraila